Cadizeko Gorteak eta Konstituzioa

2012-2013 ikasturtearen
hasiera-hitzaldia

Gregorio Monreal Zia
irakasle doktore jauna

Nafarroako Unibertsitate Publikoko
Zuzenbidearen Historiako katedradun emeritua

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

25 Aniversario Urtemuga 1987-2012

upna Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Cadizeko Gorteak eta Konstituzioa

2012-2013 ikasturtearen hasiera-hitzaldia

Gregorio Monreal Zia
irakasle doktore jauna

Nafarroako Unibertsitate Publikoko
Zuzenbidearen Historiako katedradun emeritua

Iruñean, 2012ko irailaren 7an

25 Aniversario Urtemuga 1987-2012
upna Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Argitaratzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Koordinazioa: Komunikazio Zuzendaritza
Fotokonposizioa: Pretexto. pretexto@pretexto.es
Inprimatzailea: Ona Industria Gráfica
Lege gordailua: NA 1436/2012
Banaketa: Argitalpen Atala
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Arrosadiko campusa
31006 Iruñea
Faxa: 948 169 300
Posta: publicaciones@unavarra.es

Nafarroako Foru Erkidegoko lehendakaria,
Errektore jauna,
Agintari txit argi eta prestuak,
Unibertsitateko Komunitateko kideak,
Jaun-andreak:

Cadizeko Gorteen eta Konstituzioaren berrehungarren urteurrena ospatzen ari gara. Urteurren hori ospatzeko, irakaskuntzaren munduak biltzar, jardunaldi, mintegi eta hitzaldi ugari egin ditu bai Espainian eta bai Iberoamerikan ere, eta jarduera horien harira jadanik argitalpen asko argitaratu dira, bibliografia klasikoari gehitu behar zaizkionak[1]. Bestalde, komunikabideek gertakari haiei buruzko programa bereziak

1. Garriga Acosta, Carlos (koord.), *Historia y Constitución. Trayectos del constitucionalismo hispano*, Mexiko, Ikerketa Erakundea, José María Luis Mora dk. Mexiko, D. F.; Ekonomia Ikerketa eta Irakaskuntzarako Zentroa; Mexikoko Kolegioa; Michoacáneko Kolegioa; Zuzenbideko Eskola Librea; HICOES Ikerketa Proiektua; Madrileko Unibertsitate Autonomoa, 2010. Hamar lan ditu, batez ere Zuzenbidearen Historiari buruzkoak. Escudero López, José Antonio (zuz.), *Cortes y Constitución de Cádiz. 200 urte*, 3 liburuki, Madril: Espasa Libros; Rafael del Pino Fundazioa. 2011 Berrehungarren urteurrenaren harira egindako lan garrantzitsuena da, eta ehun bat egile aritu dira elkarlanean. Fernández Sarasola, Ignacio, *La Constitución de Cádiz. Origen, contenido y proyección internacional*, Madril: Azterlan Politiko eta Konstituzionaletarako Zentroa, 2011. Liburu honekin bukatu ditu egileak Espaniako lehen konstituzionalismoaren historiari buruzko argitalpenak. *Constitución española de 1812*. Cadizeko Konstituzioaren lehen argitalpen ikonologikoari buruzko atariko azterketa Coronas González, Santos M. egilearen eskutik: 2 liburuki, Madril: Estatuko Aldizkari Ofizialaren Estatu

ematen dituzte, eta erakunde publikoek gertakizun haiek ospatzeko ekitaldi ospetsuak antolatzen dituzte.

Interes akademiko eta politikoaren oinarrian arrazoi desberdinak daude. 1810ko irailaren 24an Cadizeko Gorteak eratu ziren Leongo Uhartean –egun San Fernando uhartea–, eta, bi urte beranduago, Konstituzio bat aldarrikatu zuten Cadizeko hirian. Testuak balio sinboliko handia du Espaniako konstituzionalismoaren historian, erregimen liberalaren abiapuntutzat jotzen baita. Gorteek onartutako Konstituzioa, bere erakunde izaeraz harago, Nazioak eta Nazioarentzat lortutako askatasunaren ikur bilakatu zen. Karta Magnak ezohiko proiekzioa izan zuen nazioartean, eragina izan baitzuen, gutxi-asko, Portugal, Italia, Errusia eta Norvegiako konstituzio prozesuetan, eta arretaz aztertu baitzuten Ingalaterra, Frantzia eta Alemanian. Halaber, eragin handia izan zuen Iberoamerikako Estatu berrietako konstituzioen testuetan. Batzuek goraipatua –askok bizia eman zuten beragatik–, eta beste batzuek arbuiatua, hurrengo belaunaldiek gogoan eduki dute.

Beraz, Gorteen eta Konstituzioaren berrehungarren urteurrena garrantzi handiko gertakizuna da. Ikuspegi ugaritatik aztertzeko modua ematen du, baina irakaspen hitzaldi bateko azalpen eskakizunek gai batzuk aukeratzera eta interes handiko kontuak alde batera uztera behartzen dute. Hori dela-eta, gauza batzuk bakarrik aztertuko ditugu honako gai hauei buruz: Europako testuingurua eta Espaniako egoera, Gorteak bildu aurreko gorabeherak, Konstituzioaren prestaketa, eta testuaren balioa eta esanahia.

1. Europako testuingurua

Lehenik eta behin **Europako testuinguruari** buruzko ohar bat. Hogei urte igaro ziren Frantziako Iraultza gertatu zenetik, eta 1808 aldera, Iraultza jadanik sendo-

Agentzia, Espainiako Liburutegi Nazionala; Azterlan Politiko eta Konstituzionaletarako Zentroa; Cadizeko Konstituzioaren II. mendeurrena ospatzeko Partzuergoa. 201.1. 1822ko argitalpeneko biñetak dauzka. *Iura Vasconia. Revista de Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia*, 8 (2011).

Lan klasikoen artean: FERNÁNDEZ MARTÍN, Manuel, *Derecho parlamentario (1808-1820)*, Madril, 1855. 1855-1900 argitalpenaren faksimile erreprodukzioa, Juan José Lavilla Rubiraren atariko azterlanarekin, Madril: Diputatuen Kongresua, 1992]. ARTOLA, Miguel, *Los orígenes de la España Contemporánea*, Madril: Azterlan Politikoetarako Erakundea. 2 liburuki, 1959. SUÁREZ VERDEGUER, Federico, *Las Cortes de Cádiz*, Madril: Rialp, 1982. TOMÁS Y VALIENTE, Francisco, "Génesis de la Constitución de 1812: de muchas Leyes Fundamentales a una sola Constitución", *Anuario de Historia del Derecho Español*, LXV (1995), 13-125 or. [Halaber honako lan honetan 1997. *Obras completas*. Madril: Azterketa Konstituzionaletarako Zentroa. V. liburukia, 4449-4555 or.]. CORONAS GONZÁLEZ, Santos M., "Las leyes fundamentales del Antiguo Régimen. Notas sobre la Constitución histórica española", *An. de Hist. del Der. Esp.*, 65 (1995), 127-218 or.

tua zegoen Europako estatuen bi koaliziok porrot egin eta gero –estatu kideen artean zeuden Ingalaterra, Austria eta Errusia–. Bigarren koalizioa Napoleonek garaitu zuen, "patuaren semeak", izen horrekin dei ziezaioten agindu eta bere burua enperadore koroatu zuenak. 1805ean hirugarren koalizioa eratu zuten aipatu hiru indarrek. Lehenengo biak erraz garaitu zituzten; ez, ordea, Britainia Handia, hark itsasoan zuen nagusitasuna ziurtatu baitzuen Frantziako eta Espaniako armadak Trafalgarren suntsituta. 1806tik 1812ra bitartean, Frantziaren nagusitasunaren pean egongo zen ordena kontinental berri bat eraikitzen saiatu zen Napoleon Europan.

Mendebaldeko Inperioaren diseinu napoleondarrarentzat oztopo izaten jarraitzen zuen, ordea, Ingalaterrak. Aipatu herrialdeari ekonomia porrota eragitea erabaki zuen Napoleonek, itsasontzi ingelesei Europako portuetara sartzea eragotziz, Sistema kontinental deitu zena abian jarriz. Portugal, britainiarren aliatua, garaitzeko asmoarekin, Espainiatik igarotzeko eskubidea lortu zuen Fontainebleauko Itunaren bidez. Baina enperadorearen proiektu europarrak oztopoko berriak aurkitu zituen bidean: Espainiako errebolta, ingelesek, beraien aurkako neurriei erantzuteko ezarri zuten blokeoa Europako kostaldeetan, nazionalismoaren hazkundea Napoleonen mendeko Estatuetan. Bestalde, Alexandro tsar errusiarrak uko egin zion Sistema kontinentalean parte hartzen jarraitzeari. 1812an *Grande Armée*k Errusia inbaditu zuen, eta 400.000tik gora gizon hil ziren gerra-ekintzetan eta elur ekaitzen ondorioz. Europa osoa jazarri zen, eta Napoleon garaitua izan zen Leipzigen, Nazioen Guduan. Bere erorialdiaren ostean boterea berreskuratu zuen ehun egunez, harik eta 1815ean, Belgikan, Waterlooko guduan porrot egin zuen arte. Hauxe da, beraz, Cadizeko batzarra egin zen urteetako testuinguru politiko eta militarra.

Baina politika eta gerrako gertakari nagusiez gainera, aintzat hartu behar da Frantziako Iraultzak Europako kontinenteko herrialdeetako erakunde publiko eta pribatuetan izan zuen eragina. Konbentzioaren eta geroago enperadorearen gudarosteek zeresan handia izan zuten feudalismoaren gainbeheran edo porrotean (hau da, jaun sistemaren eta laborariek jasan behar zituzten zamen desagerpena, laborantza erreforma, apaizeriaren eta nobleziaren zerga salbuespenaren amaiera). Frantsesek honako printzipio hauetan oinarritutako Konstituzioak indarrean sartzea sustatu zuten nonahi: herri subiranotasuna, legea ordenamendu juridikoaren iturri nagusi gisa, botere banaketa eta giza eskubideen deklarazioak. Bestalde, mendebaldeko eta erdialdeko Europan aplikatu ziren Napoleonen Kodeak eta gizabanakoen arteko berdintasun zibila ezartzen lagundu zuten.

2. Espainiako Monarkiaren egoera

Ohar batzuk gehituko ditugu **Espainiako Monarkiaren edo Monarkia katolikoaren testuinguru kritikoari** buruz –hori da Estatuaren izen ofiziala–. Hemen

arazo oso larriak daude, hala nola frantsesen okupazioa, krisi dinastikoa eta herri gerra, eta matxinadatik sortutako botere berri baten ezarpena, Monarkiaren makineria zaharrean aldaketak sartzeko gogo zabalduarekin batera.

a) Lehenengo eta behin, frantsesek okupatutako herrialde bat da Espainia. Karlos IV.a errege erdipurdikoak Godoy bere begikoaren laguntza izan zuen, baina honen kanpo-politika negargarria izan zen. Europako beste monarkia batzuekin batera Frantziako Konbentzio Iraultzailearen aurka 1793an deklaratu zuen gerran Santo Domingo uhartea galdu zuen, eta, Frantziarekin aliantza sinatu eta gero, Espainiako Monarkiak Trinidad eta Luisiana galdu zituen eta Trafalgarreko porrot erabakigarriari aurre egin behar izan zion. Porrotaren ondorioz, Espainiak Amerikan zituen koloniak babesgabe eta beren kabuz aurrera egin beharrean geratu ziren. Godoy ezin izan zituen eragotzi Napoleonek Portugal eta Espainiarako zituen asmoak, eta Monarkiako eliteek ez zuten begi onez ikusi soldadu-olde frantsesak herrialdetik igarotzea eta Donostia, Iruñea eta Bartzelona okupatzea. Espainiaren independentzia mehatxupean zegoen[2].

b) Erregetza borbondarra ospea erabat galduta zegoen Godoyri emandako babesagatik, eta testuinguru horretan bigarren krisi bat sortzen da, dinastikoa. Godoyren despotismo ministerialak eta kanpo-politikak eragindako ezinegonak eta aurkako jarrerak Gorteko konplot bat prestatzera bultzatu zuten Fernando, Asturiasko Printzea. Kolpeak porrot egin zuen, eta epaiketan printzeak haren izaera agerian jarri zuen bere gaizkideak salatu baitzituen. Baina, harrigarria bada ere, iritzi publikoak Karlos IV. bere aitaren biktima zen heroitzat hartu zuen printzea. Hilabete batzuk geroago, Murat, enperadorearen koinatua, gudaroste handi baten buru Madrilera zihoala, matxinada bat gertatu zen Aranjuezen eta Karlos IV.a boteretik kendu eta Fernando jarri zuen tronuan. Lehendabiziko aldia zen herri ekintza batek monarka bat tronutik kentzen zuena eta Erdi Arora atzera egin behar zen bere aitaren tokia ondorengotza-arauak bete gabe hartu zuen printze bat aurkitzeko. Muratek ez zuen errege berria aintzatetsi eta ondorengotzaren baliozkotasuna zalantzan jarri zuen. Horretaz gainera, aita-semeak Baionara bidali zituen Napoleon epaile gisa aritzeko. Aturriko hirian eginiko bilera lotsagarrietan, enperadoreak Borboiak izaeraz ahulak zirelako inpresioa baieztatu zuen, eta haiek Koroarako eskubidea eman zioten. Gero Napoleonek bere anaia Joseri, Napoliko erregeari, transferitu zion eskubide hori. Baina dinastia-aldaketa Borboien egintza pribatu hutsen bidez egin zen, Gorteen

2. VILAR, Pierre, "Quelques aspects de l'óccupation et de la resistence en Espagne en 1794 et au temps de Napoleon", *Occupants-Occupés, 1792-1815*, *Actes du colloque qui s'est tenu à Bruxelles les 28 et 30 janvier 1968*, Bruxelles: ULB, 1968, 221-252 or.

aginduzko parte-hartzerik gabe. Horregatik Espainiako populazioaren gehiengoak ez zuen baliozkotzat hartu Fernando VII.aren uko egitea, eta monarka idealizatua izan zen kanpora joanda zegoen errege gisa. Baina erabakigarriena erregearen ausentzia izan zen, subiranotasuna dilindan uzten baitzuen, eta norbaitek bere gain hartu behar zuen[3].

c) Botere berri baten sorrera matxinatuen artean: Erreferentzia politiko argi bakarra erregea da, eta berari zor zaion leialtasuna. Interes komunak bilduko dituen **sentimendu nazional** bat ia ez dagoela egia bada ere, gerra erabakigarria izango da subjektu kolektibo baten sortzeko. Matxinada okupazio-armadarik ez zegoen tokietan bakarrik gertatu zen, eta erakunde autonomoak ekarri zituen, **Batzorde Patriotikoak** deiturikoak. Elite tradizionalek subiranotasuna beren gain hartu, ordena berrezartzen eta agintari berriekiko mendekotasuna ziurtatzen ahalegintzen dira. Batzordeek boterea berriz osatzeko prozesu batean parte hartu zuten **Erresumen mailako Batzorde Gorenak** sortuz. Teoria itunzale tradizionalak berreskuratzen dira, Herriaren subiranotasuna beraiena dela ulertzen baita, eta herriaren subiranotasuna beren gain hartzen dute kanpora joanda dagoen erregearen eskubideak defendatzeko. Sistemak anarkiarako joera dauka eta gerra zibila pizteko arriskua dago, eta Ingalaterrak estutu egiten du botere zentral moduko bat sortzeko. Baina nola eta zer nolako aginpidea izan behar zuen Monarkiaren esparru osoaren gainean? Lehendabiziko aldiz eztabaida publiko bat sortzen da subjektu politikoari buruz, kanpoan dagoen erregeak utzitako botere hutsunea beteko duen erakundeari buruz. Espainiako Koroak ez zeukan erregeordetzaren edo Gorteen esku-hartzearen tradiziorik. Eztabaidan hainbat proposamen agertu ziren. Kontserbadoreak Gorteetan tradizioz ordezkaritza zuten hirien elkarteei ahotsa ematearen aldekoak dira, aristokratek nahiago dute probintziako hiriburuei ahotsa ematea, berritzaileenek nazioaren batzorde subirano bat nahi dute, probintzia bakoitzeko bi diputatuz osatua, eta erabateko boterea izango duena, eta iraultzaileak hiritar guztiek hautatutako Estatu jeneral batzuen alde daude. Madriletik alde egin eta gero 1808ko uztailean, Bailengo guduaren ondoren, erresumen Batzorde Gorenek irailaren 25ean onartu zuten **Batzorde Zentrala** eratzea eta Batzorde Goren bakoitzeko bi ordezkari izango zituela adostu zuten. Gobernu organo goren hori bildu eta gero, kantonalismoaren

3. Krisi dinastikoa legearen arabera adierazten duen dekretu multzoaren testuak hemen daude: García Gallo, Alfonso, *Curso de Historia del Derecho español, II Fuentes del Derecho*, 5. argitaraldi berrikusia, Madril: egilearen argit., 1973. Karlos IV.aren dekretua erregetza semeari uzten diona, 1808ko martxoaren 19a, 1164 zk.; Fernando VII.arena erregetza aitari uzten diona, 1808ko maiatzaren 6a, 1170 zk.; Karlos IV.arena erregetza Napoleoni uzten diona, 1808ko maiatzaren 8a, 1171 zk.; Napoleonena Espainiako Koroa bere gain hartzen duena, 1808ko maiatzaren 25a, 1174 zk.; Napoleonena Espainiako Koroa bere anaia Joseri ematen diona, 1808ko ekainaren 6a, 1176 zk.

aldian behingo fenomenoari amaiera jarri eta probintzia batzordeak bere esanetara jartzen ditu. Erregearen subiranotasuna behin-behinean eta erregeordetza gisa berari dagokiola adierazten du, eta boterea eskema absolutista eta ez itunzale baten arabera erabiltzeko asmoa du[4].

d) Eta hirugarren lekuan herri gerra piztea. Agintari kolaborazionisten aurkako matxinadak eta gero frantsesen aurkako gerra irekiak ezustean harrapatu zituzten denak. Maiatz bukaeran, erdiko klaseek, intelektualek eta kapareek boterea eskuratu zuten, eta, herri xehearen babesarekin, Madrilen gertatzen zen bezala, frantsesekin kolaboratzen zuten agintariekin borrokatzen dute, laster inbaditzaileen aurka eta haiek Europan ordezkatzen zutenaren aurka zuzenduko badute ere borroka, Napoleonek Jose Bonaparte errege eta Baionako Konstituzioa inposatzen dituela ikustean. Herri gerra ankerra da, aiztoa da nagusi, eta gerraren krudelkeria, frantsesen gehiegikeriek justifikatua, erakutsi zuen Goyak *Gerrako hondamendiei* buruzko bere akuaforteetan[5].

3. Erreforma politiko eta sozialen nahia

Europako eta Espainiako testuinguruak esparru aproposa zirudien erreforma politiko eta sozialetarako, erreformak hasteko gutxienez, baina ez haiek egonkortzeko. Aldaketak sartzeko nahia probintzia batzordeetan agertzen da eta gero Batzorde Zentralean. Jose I.aren administrazioak hasitako aldaketek ezin zuten ezkutatu jeneral frantsesen konkista nahia, eta baldintza horiekin ezinezkoa zen dinastia napoleoniko berriaren ekimenek aurrera egitea. Bestalde, matxinadarekin sortutako erreformismoak oinarri sozial askotarikoa dauka, hiru talde baititu gutxienez, eta erreformek ezarritako norabideari jarraitzea oztopatzen dute: Godoyren erregimenaren despotismo ministerialarekin pozik dauden agintariak, matxinadak partzialki beren postuetatik baztertu dituenak, gutxiengoa dira. Gehiago dira Monarkiaren ordezkaritza eredu zaharrak berreskuratuz (direla foruzaleak, direla zentralizatzaileak) Estatua berreraikitzearen panazean sinesten dutenak. Haien artean intelektualak, joera jansenistako apaizak, jabeak eta periferiako erdiko klaseen parte bat daude. Eta, azkenik, joera frantseseko Konstituzioa ezartzeko aukeran sinesten

4. García Gallo, Alfonso, *Curso... II*, 1808ko irailaren 25eko Dekretua, Erresumako Batzorde Zentrala eratzen duena, 1191 zk. *Memoria sobre la constitución de la Junta Central, Suprema y Gubernativa del Reyno*, Madril: Fuentenebro, 1808.

5. Altxamenduaren ondorioei buruz: Hocquellet, R., *Résistance et révolution durant l'occupation napoléonienne en Espagne, 1808-1812*, historia tesia, Paris: La Boutique de l'Histoire, 2001.

duen gutxiengo ahula dago, Napoleonen osteak soldadu inbaditzaile gisa borrokatzen badituzte ere. Batez ere intelektualak dira. 1808-1814 aldiko gertakarien atzean azken bi talde horien aliantza dago.

4. Jovellanos, Calvo de Rozas eta Quintanak Gorteetarako deia proposatzen dute

Agintari berriek ia ez dute hitzik egiten Gorteei buruz eta are gutxiago Konstituzio berri bat egiteari buruz, eta gai horiek beranduago agertuko dira agenda politikoan. Fernando VII.ari zor zaio Gorteetarako deia egiteko ekimena. Erregetza Napoleoni uzteko abdikazioen ondoren, Karlos IV.a aitari bidalitako gutun batean idatzi zuen dinastia-aldaketa egiteko Gorteen oniritzia behar zela eta maiatzaren 4an sinatutako dekretu batean berriro esaten du askatasuna kendu diotela eta Gorteetarako deia egin nahi duela[6]. Deiaren beharra iradokitzeko meritua Jovellanosi dagokio, Bellverreko presondegitik irten bezain laster bileraren alde egin baitzuen. Nolanahi ere, badakigu 1808ko urrian bertan agerian utzi zuela Gorteak biltzeko beharra. Hilabete batzuk berritasunik gabe igaro eta gero, hurrengo urteko apirilaren 15ean, Lorenzo Calvo de Rozas armadako intendenteak eta Aragoik Batzorde Zentralean zuen ordezkariak idazki bat aurkeztu zuen erakunde honetan Gorteak biltzeko eskatzeko[7]. Beraz, litekeena da Jovellanos izatea bilera proposatzen lehena, eta Calvo de Rozas izatea eskaera egiten lehena. Batzorde Zentraleko idazkaritzako ofiziala, José Manuel de Quintana poeta, "espainiar liberalismoaren buru nagusitzat" hartua izan denak, Manifestu bihurtu zuen eskaera, deialdirako dekretu baten proiektua gehituta[8].

5. Gorte Batzorde baten sorrera

Baina zer nolako Gorteak eta zertarako bildu Gorteak? Calvo de Rozasek eta Quintanak iraultza liberal bat egingo zuten benetako Gorte eratzaileak proposatzen zituzten. Pertsonaia absolutistek, esate baterako Palafoxek, Gorte tradizionalak zituzten gogoan, eta ez zituzten beharrezkotzat jotzen aldaketak, beraientzat aski baitziren

6. Atzera egin baino lehen, Fernandok deialdi agindu bat eman zuen: SUÁREZ VERDEGUER, Federico, *El proceso de convocatoria a Cortes (1808-1810)*, Iruñea: EUNSA, 1982, 27-33 or.

7. Testua hemen dago: FERNÁNDEZ MARTÍN, Manuel, *Derecho parlamentario español*, Madril:, Diputatuen Kongresua, 1992, I, 436-438 or.

8. Quintanak Batzorderako idatzitako manifestua hemen dago: DÉROZIER, Albert, *Manuel Josef Quintana et la naissance du libéralisme en Espagne*, tesia Letretan, Paris: Les Belles Lettres, 1968-1970, I, 407-409 or.

Monarkiaren funtsezko legeak. Haien erdian, Jovellanos zegoen. Berak *Gorteak estamentuka biltzeko irizpen bat* prestatu zuen. Bere tesia zen erregeari bakarrik zegokiola subiranotasuna eta Gorteek, modu tradizionalari jarraiki apaizeriaz, nobleziaz eta hiriez osatuak zeudenek, erregeari gai garrantzitsuetan aholkuak emateko eskubidea zutela bakar-bakarrik.

Hilabete pasatxo igaro eta gero, maiatzaren 22an, aurkako iritziak luze eztabaidatu eta gero, onetsi zen "Monarkiaren ordezkaritza legezkoa eta ezaguna garai bateko Gorteetan" berrezartzen zuen dekretua[9]. Bazirudien joera tradizionalista garaile atera zela, baina artean tartea bazegoen beste konponbide batera iristeko, erabaki gabe baitzeuden hainbat gai erabakigarri. Esaterako, batzarra egiteko eguna, batzarra izendatzeko eta osatzeko modua, jarduteko prozedura, eta, batez ere, batzarraren xedea, eta xede hura zehazteko herrialdeari galdetu behar zitzaion. Beharbada Batzorde Zentraleko kideek Jovellanosen *Irizpena* irakurtzeko aukerarik ez zuten izan. Ekimena aurrera eramateko, Gorte Batzorde bat sortu zuten. Batzordeak bost kide zituen eta batzordekideak Batzorde Zentraleko kideak ziren. Haien artean Jovellanos zegoen, intelektual eta politikari asturiar hutsezina[10].

6. Herrialdeari galdetzea, Gorteen osaeraren eta etorkizuneko Konstituzioaren definizioari buruzko eztabaida

Herrialdeari eginiko kontsultaren txostenek *Cahiers de doléances* izeneko agiriak gogorarazten zituzten. Agiri horiek Frantzian egin ziren, Jeneralak 1788tik 1789rako neguan bildu baino lehen[11]. Batzorde Zentralak jaso eta Gorte Batzordeak aztertutako ehun bat erantzunen artean[12] gehientsuenek joera erreformazale hutsa zuten, ordena tradizionalarekin jarraitzeko joera ez zutenean, baina orain beste joera bat agertuko da. Subiranotasuna nazioari dagokiola defendatzen du joera honek, Gorteek konstituziogileak izan behar dutela, eta etorkizuneko batzarrak ganberabakarrekoa izan

9. Batzorde Zentralaren dekretua Gorteetarako deia egiten duena 1809ko maiatzaren 22an. Dekretuaren testua hemen dago: GARCÍA GALLO, Alfonso, *Curso... II,* 1194 zk.

10. Jovellanosen biografiaz arduratu zen: CEÁN BERMÚDEZ, Juan Agustín, *Memorias para la vida del Excmo. Señor Don Gaspar de Jovellanos, y noticias analíticas de sus obras*, Madril: Fuentenebro, 1814.

11. Herrialdeari kontsulta hemen: ARRIAZU, M. I., "La Consulta de la Junta Central al país sobre Cortes", *Estudios sobre las Cortes de Cádiz*, Iruñea: EUNSA, 1967.

12. Txostenak argitaratu zituen: ARTOLA, Miguel, *Los orígenes de la España contemporánea*, Madril: Aymes, 1975, II. liburukia. SUÁREZ VERDEGUER, Federico (argit.), *Informes oficiales sobre Cortes*, atariko azterlana eta oharrak barne. Nafarroako Unibertsitateko Historia Modernoko mintegia. "Baleares", 1969; II. liburukia. "Valencia y Aragón", 1968; III. liburukia: "Andalucía y Extremadura", 1974.

behar duela eta ahalmen legegilea eduki behar duela. Jovellanos, bere bokazio erreformazaleari leial, aldendu egiten da ikuspegi horretatik. Bere erudizioan eta Martínez Marina adiskide eta herrikidearen erudizioan oinarritzen da. Martínez Marinak Gaztelako Gorte tradizionalak ikertu zituen Jovellanosek eskatuta[13]. Lord Holland eta John Allenek konstituzionalismo anglosaxoiari buruz ematen dizkioten informazioak ere baditu. Aipatu pertsonaiak espainiar tradizioaren aldekoak ziren. Bide horretatik jarraitzeko aholku eman zioten baina ganbera biko sistemaren berritasuna sartuta[14]. Iradokizunak zalantza eginarazi zion Jovellanosi, ganbera biko sistema tradiziotik kanpo zegoela eta Batzorde Zentralak ez zuela onartuko uste zuelako.

Gorteetarako deia egin baino urtebete lehenago erabakiko zuten Batzorde Zentralak sortutako bi batzordek nolako ezaugarriak izango zituzten Gorteek eta Konstituzioak. Alde batetik, **Legegintza Batzordea** delakoari buruz ari gara. Batzorde honek Cadizeko konstituzioaren testuak etorkizunean izango zuen edukia baldintzatu zuen Zuzenbide tradizionalaren funtsezko legeak alde batera utzi eta Zuzenbide liberalaren berritasunen aldeko hautua egin zuelako. Eta bestetik, **Gorteetako Zeremonia Batzordea** delakoari buruz. Batzorde honek estamentu banaketarik gabeko Gorte bakarren aldeko hautua egin zuen.

Eratu zenean, **Legegintza Batzordeak** Batzorde Zentralaren Jarraibide bat jaso zuen, bete beharreko helburuei buruzkoa. Jarraibideek joera tradizionalista zuten, baina printzipio erreformista batzuk ere bazituzten. Esaterako, lurralde berdintasuna, Kode moderno bat egitea, jurisdikzio batasuna eta tortura ezeztatzea. Jovellanosek idatzi zuen. Legegintza Batzordeak Gaztelako legedi tradizionala aztertu eta bere funtsezko edo oinarrizko legeak atera behar zituen. Orain nabarmenduko da Legegintza Batzordeko kide bat, Antonio Ranz Romanillos helenista soriarra. Escuderok pertsona kontradiktorio eta enigmatikotzat jo zuen. Mandatua bete zuen, funtsezko legeen zerrenda labur-zehatza aurkeztu baitzuen, baina bere kabuz aurkeztu zuen, halaber, Zuzenbide publiko berriaren kontzeptuetan oinarritutako galdetegi bat eztabaidarako. Legegintza Batzordeak, Batzorde Zentralak emandako agindutik aldenduz, funtsezko lege tradizionalen zerrenda laburra alde batera utzi

13. MARTÍNEZ MARINA, Francisco, "Ensayo histórico-crítico sobre la legislación y principales cuerpos legales de los reinos de León y Castilla, especialmente sobre el Código de las Siete Partidas de Alfonso el Sabio, conocido con el nombre de las Siete Partidas" [1808], *Obras escogidas de D. F. Martínez Marina*, I, Madril: Atlas, 1966, 1-354 or. Gaztelako Gorteetarako deia egiteko antzinako ohiturari buruzko gutuna, hemen: *Teoría de las Cortes*, Oviedo: Asturiasko Printzerriko Junta, 1996.

14. TOMÁS Y VALIENTE, Francisco, "Espainiako Gorteak 1809an, Lord ingeles batek, espainiar ilustratu batek eta John Allen izeneko mediku gazte batek egindako liburuxka elebidun baten arabera", *Obras completas,* Madril: Azterketa Politiko eta Konstituzionaletarako Zentroa. V. liburukia, 1998, 4717-4731 or.

eta galdetegi berria eztabaidatu zuen. Erabaki honek markatu zuen etorkizuneko Konstituzioak izango zuen joera berritzailea.

Halaber, ondorio erabakigarriak izango zituen bigarren aldaketa batek, Gorteen osaerari buruzkoak. Gorte Batzordeak, non agintzen baitzuten Jovellanosek eta bere adiskideek, proposatu zuen Gorteak bil zitezela "Gaztelako usadioari jarraituz", hau da, apaizeriaren, nobleziaren eta hirien estamentuei zegozkien hiru multzotan, eta estamentu horiek bi ganberatan elkartuko ziren. Baina **Zeremonia Batzordea**, arrazoi desberdinetan oinarrituta, Ganbera bakarraren alde agertu zen, –haien iritzian– estamentuen arteko banaketa horma hautsiko zutelakoan. Batzorde Zentrala, azkenetan zegoena, izango zen azken erabakia hartuko zuena. 1808ko abenduaren 24an Ganbera bakarraren aldeko hautua egin zuen duda-mudan, Gorteak martxoaren 1ean Leongo Uhartean biltzeko deia egiteko Jovellanosek idatzi zuen dekretuak Gorte estamentalei eutsi eta alde batetik artzapezpikuei eta apezpikuei eta bestetik Espainiako handikiei dei egiten bazien ere. Hilabete bat geroago, urtarrilaren 31n, Batzorde Zentralak Monarkiako agintaritza berriari bide eman zion, hau da, Erregeordetzako Kontseiluari. Aipatu Batzordeko bost kidek osatzen zuten Erregeordetzako Kontseilu hori, eta Castaños jenerala zen burua[15]. Gorteen osaerari buruzko auzia konpondu gabe zegoen artean, eta hilabeteak igaro ziren Kontseilua, 1809ko irailaren 20an, Ganbera bakarraren alde agertu baino lehen. Jovellanos eta bere adiskideak galtzaile atera ziren.

7. Gorteen osaera. Diputatuak. Tokia: Leongo uhartea eta Cadizeko hiria

Gorteen osaerari dagokionez, antzinako ordezkatze sistemaren aurrean amore eman zen zenbait gaitan. Esaterako, diputatu bat eman zitzaion iraganean Gorteetan aulki bat zuen hiri bakoitzari. Gainerakoan, denak berritasunak izan ziren, hala nola probintzia batzorde bakoitzari ordezkari bat esleitzea, eta, diputatuen gehiengoaren izendapenari zegokionez, ordezkaritza zenbakizkoa eta zeharkakoa ezartzea (Parrokia Batzordetik Barruti Batzordera eta Barruti Batzordetik Probintzia Batzordera): diputatu bat 5.000 biztanleko. Batzarrak 300 diputatu izango zituen (220 penintsulakoak eta inguruko uharteetakoak, eta 80 Amerika eta Asiakoak). Arazo nagusia zen jakitea nola joango ziren okupatutako probintzietako eta Amerikako ordezkariak batzarraren bileretara. Arazoari konponbide hau eman zitzaion: ordezko diputatuak sortu ziren,

15. Batzorde Zentralaren dekretua, 1810eko urtarrilaren 29koa, Erregeordetzako Kontseilua eratzen duena. Dekretuaren testua hemen dago: García Gallo, Alfonso, *Curso... II*, 1194 zk.

eta Cadizen bizi ziren hauteskunde-barruti bakoitzeko auzoek hautatuko zituzten diputatu horiek. Konponbide hori gehiago zen itxurazkoa eta Gorteei ordezkaritasuna galarazi zien. Izan ere, irekitze-egunean, Amerikako diputatu bat besterik ez zegoen. Geroago hasi ziren Gorteen bileretara joaten, gainerakoak ordezkoak ziren.

Elizgizonak diputatuen heren bat ziren, gehienak goi mailako apaizeriakoak. Seiren bat abokatuak ziren, eta ordezkari gisa agertzen ziren berrogei militar. Unibertsitateko irakasle talde txiki bat zegoen. Nobleziak pisu txikia izan zuen. Aipatzekoa da buru zen taldea burgesia txiki ilustratukoa zela. Gehienak, batez ere sektore liberalean, gazteak ziren. Esaterako, Torenoko kondea, Argüelles, "Jainkotiarra", edo José María Calatrava. Sektore absolutistan batez bestekoa berrogeita hamar urteren bueltan zegoen. Jatorri geografikoaren ikuspegitik eragin handia izan zuten XVIII. mendearen bigarren erdian Oviedoko Unibertsitatean prestatutako belaunaldi distiratsuko diputatu asturiarrek. Extremadurako diputatuak ere nabarmendu ziren.

1810eko irailaren 24an bildu ziren Leongo Uhartean, Gorte Nagusiak eta ohiz kanpokoak –hau da, konstituziogileak–. Bilerak han egin zituzten, frantsesek Cadiz setiaturik eduki zuten bost hilabeteetan. 1811ko otsailaren 24an, lekua aldatu zuten. Cadiz hiri kosmopolita zen, eta 100.000 biztanle inguru zituen, baina hiriak zuen garrantzia gutxitu egin zen beste portu batzuei Amerikarekin merkataritza jarduerak egiteko askatasuna aitortu zitzaienean 1778an. Probintzia Baskongadoetako, Nafarroako eta Errioxako merkatari talde asko zituen, bai eta Europako hainbat herrialdetako merkatari koloniak ere. Populazioak sendo eutsi zion bere adoreari, Soul jeneralaren setioak iraun zuen bitartean eta sukar horiaren arriskuen aurrean. Auzoek ahalegin handia egin zuten diputatuei ostatua emateko duintasunez. Hiriko Ancha kalean San Felipe Nerikoa elizan, bilerak egiteko aukeratutako lekuan, egiten ziren bilerei buruzko informazioak trukatzen ziren. Han jaio zen iritzi publiko modernoaren fenomenoa, eztabaidatutako gaien inguruko iritzi honen edo haren alde jartzen baitzen populazioa[16].

8. Gorteek 1810eko irailaren 24an egindako lehen bilera konbentzio bihurtu zen

Artolak idatzita dauka, erakundeen ikuspegitik, Cadizeko Gorteak benetan konbentzio bat direla, hau da, herrialde bateko ordezkarien batzar bat dela, botere guztiak bere gain hartzen dituena, honako kasu hauetan gertatu zen bezala: 1660

16. Solís Llorente, Ramón, *El Cádiz de las Cortes*, Cádiz: Sílex, 1987.

eta 1688ko esperientzia ingelesa, 1774tik aitzina amerikar kolonietako konbentzioak eta 1793ko konbentzio frantsesa, batzar iraultzaile baten benetako bertsio kanonikoa. Boterea han biltzen da, bai legeen edo dekretuen bidez legeak eginez eta bai Administrazioko adar bakoitzeko arduradunei zuzendutako aginduak emanez ere[17].

Konbentzio bihurtzeko adostasuna Gorteen bilerako lehen unean lortu zen, 1810eko irailaren 24an. Gutxiengo aurrerakoienak boterea eskuratu nahi zuen lehen saiotik. Gorteak ireki eta gero, Diego Muñoz Terrero elizgizon extremadurarrak hartu zuen hitza. Ordu laurdeneko hitzaldiak, Pérez Galdosen iritzian esakune, ele-eder eta jakinduriaz beteta zegoenak, monarkia absolutuaren hiru mende dinamitatu zituen. Hitzaldian azaldu zituen proposamenak dekretu zirriborro batean jaso zituen berehala bere adiskide Manuel Lujánek. Laburbilduz, dekretuak bi printzipio jasotzen zituen: herriaren subiranotasuna edo subiranotasun nazionala, espainiar nazioaren Gorteetan gorpuztua, eta botere banaketa. Lehendabiziko aldiz legezko egin zen esplizituki espaniar nazioaren kontzeptu juridikoa. Eztabaida labur bat egin zen gai horri buruz, baina ez dago aktetan jasota[18]. Erregeordetzako Kontseiluko lau kideek dekretua zin egin zuten zalantzaz beterik, beren eginkizun nagusiak kentzen baitzizkien. Baina aipatzekoa da inork ere ez zuela aipatu Konstituzio bat egiteko aukera.

Harik eta, urte hartako abenduan, Gorteetara gutun bat iritsi zen arte. Pedro Cevallos Erregeordetzako Kontseiluak Londresen zuen ordezkariak igorri zuen, eta Konstituzio bat egiteko eskatzen zuen. Gutuna osoko batzarrean irakurri eta hurrengo egunean, Mejía Lequerica diputatu ekuadortarrak, itxuraz ezagutzen zuenak Frantziako Estatu Jeneraletan, Pilotaren Jokoan (1789) gertaturikoa, proposatu zuen diputatuak ez banatzea harik eta Konstituzio bat egin arte. Eta hilaren 9an, Oliveros diputatuak proposatu zuen **Konstituzio Batzorde** bat sortzea Espainiako Monarkiarako konstituzio testu bat prestatzeko. Hasieran hamar diputatu espainiarrek eta hiru diputatu amerikarrek osatu zuten batzordea, baina laster gehitu zitzaizkien Jáuregui eta Mendiola diputatuak. Hauek Kuba eta Mexiko ordezkatzen zituzten.

17. ARTOLA, MIGUEL, "Cadizeko Gorteak eta Konstituzioa", ESCUDERO (argit.), *Cortes y Constitución de Cádiz, 200 años*, I, 4-5 or.

18. Gorteen I. Dekretua, 1810eko irailaren 24koa, subiranotasun nazionalari buruzkoa, hemen dago: GARCÍA GALLO, Alfonso, *Curso... II*, 1209 zk.

9. Konstituzio Batzordeak Gorteetako osoko batzarrak onetsitako testua egin zuen

Konstituzio Batzordeak 1810eko martxoaren 2an egin zuen lehenengo bilera. Une hartan agertu zen Antonio Ranz Romanillos helenista. Escuderoren esanetan, iritzi aldakorreko eta aurrekari iluneko gizaseme moldakorra[19]. Batzordeak gonbit egin zion bere jakinduriarekin egin beharreko lanean lagunduko zuen subjektu ilustratu gisa parte hartzera, eta Batzorde Zentralaren Legegintza Batzordeko kide zenean prestatu zuen Konstituzio proiektu bat aurkezteko eskatu zitzaion.

Batzordeak azaroaren erdi aldera arte lan egin zuen proiektuan. Aktak oso laburrak dira, baina badirudi eztabaida Ranzen proiektuari buruzkoa izan zela, eta, esan izan da, Batzordeak ez zuela urratsik emango Ranzik gabe. Beste batzuek Batzordeak, Muñoz Torrero buru zuenak, egindako lana azpimarratzen dute[20]. Gorteetako zuzendaritzak testua lehenbailehen aurkeztera bultzatzen zuenez, batzordekideek uztailean aurkeztu zituzten, arin samar agian, lehen hiru tituluak. Hurrengo hilean hasi zen hiru tituluei buruzko eztabaida Gorteen osoko batzarrean. Badirudi Batzordeak, Gorteetako Lehendakaritzaren edo osoko batzarren jarraibiderik jaso ez zuenak, askatasun handiz jokatu zuela funtsezko arazoei buruz eztabaidatzeko[21]. Osoko batzarrak eztabaidarik gabe onetsi zituen kapitulu eta artikulu osoak[22].

19. Baionako Batzordeko idazkaria izan zen, eta hasieran Jose I.aren administrazioko kidea izan zen Cadizera joan zen arte. Ranz Romanillosen deskribapen krudela egin zuen Carlos Lebrunek. "Liberal hustua eta zurikeriazko barrua zuena, jadanik ez bazirudien ere ez bat ez beste, baizik eta enbrioi bat, izan behar zuena egingo zuten zirkunstantzien esperoan zegoena beti: liberala izango zen betiko, betiko izan balitz askatasuna arriskurik gabe eta probetxuz, eta musulmana ere izango zen betiko, Konstituzioaren ordez, eta aurrerantzean haren faltan inoiz ez izateko arriskurik gabe, Alcoran bat prestatu izan balute Gorteek Espainiarentzat, eta hura prestatzen ere parte hartuko zuen. Aholkularia zen, baina aholkularitzarekin ezkontzen ez zen aholkularia, ez eta mirabekeriarekin ere, beste nonbaiten edo nonbaitekin saia baldin bazitekeen, dela Gorteetan dela Napoleonekin". *Retratos políticos de la Revolución en España, o de los principales personajes que han jugado en ella...* [...]. Filadelfia: [z.g.]. 1826, 299 or.

20. Artola, Miguel, "Cadizeko Gorteak...", *op. cit.*

21. *Actas de la Comisión de Constitución*, Estudio preliminar de Díz-Lois, María Cristina, Madril: Azterlan Politikoetarako Erakundea, 1976

22. *Diario de Sesiones de las Cortes Generales y Extraordinarias, dieron principio el 24 de septiembre de 1810 y terminaron el 20 de septiembre de 1813*, Madril: J. A. Garcíak inp. 9 liburuki. 1870 [Diputatuen Kongresuak argitaratutako CD-ROMa, Bileren egunerokoa, Sail Historikoa].- *Diario de sesiones de Cortes, legislaturas de 1813-1814 y 1814*, Madril: J.A. Garcíak inp. 1870 (Diputatuen Kongresuak argitaratutako CD-ROMa, Bileren egunerokoa, Sail Historikoa 2).

Aipatzekoa da osoko batzarra bigarren mailako gaiak eztabaidatzen nahasi zela, garrantzirik eman gabe egun esanguratsuak iruditzen zaizkigun gaiei. Artolak esana da "egun beren ondorio politikoengatik esanguratsuagoak iruditzen zaigun artikulu multzo bati buruz ez zela eztabaidatu edo eztabaida oso laburra izan zela" Bestalde, diputatu gutxik parte hartu zuten eztabaidetan.

10. Konstituzioaren egitura. *Atariko hitzaldia*

Konstituzioa osatzen duten 384 artikuluko hamar tituluen ezaugarri bereizgarrietako bat da bai tituluen eta bai kapituluen artean dagoen asimetria[23] (III. tituluak, Gorteei buruzkoa, hamaika kapitulu ditu, eta VII., IX., eta X. tituluek bakarra). Titulu batzuek 141 artikulu dituzte, eta beste batzuek, aldiz, 9 edo 6. Titulu bakoitzaren esakuneak testuaren edukiari buruzko ideia zehatza ematen du.

Konstituzioaren arau multzoaren aurretik *Atariko hitzaldi* luze bat dago. Egileak Agustín Argüelles eta José Espiga diputatuak izan zirela uste da, haiei eman baitzien Konstituzio Batzordeak hitzaldia egiteko mandatua. Konstituzioaren izateko arrazoia azaldu eta diputatuen eta ondorengoen aurrean justifikatu behar zituen Monarkiaren Zuzenbide Publikoan sartutako aldaketak. Eta, zehazki, Hitzaldian esaten den bezala, "Batzordeak ez duela eskaintzen bere proiektuan Espainiako Monarkiaren gorputz desberdinetan era benetakoen eta hotsandikoenean ezarrita ez dagoen deus". Joera desberdinetako egileek azpimarratu dute ezin dela onartu Hitzaldian Konstituzioaren izaerari buruz egiten den aipamen hori, zeren, edo honek Antzinako Erregimenari amaiera jarri zion, batzuek nahi duten bezala, edo ordena juridikoa aldatu zuen nazioari bere eskumenak edo eskubideak itzuliz, subiranotasun nazionala ezartzean[24]. Ordena tradizionalaren jarraitutasun bat dagoelako ideiak batez ere Martinez Marina historialariak, *Teoría de las Cortes* lanaren egileak, plazaratzen du. Konstituziogileek ongi ezagutzen zuten lan hori, Konstituzio Batzordea bere lana egiten ari zen bitartean argitaratu baitzen. Ziur aski Argüellesek eta Espigak sinesten zuten beren *Atariko hitzaldiak* zioena. Gero erantsiko dugu azken hamarkadan bide egin duen interpretazio joera indartsu batek nolabait arrazoia ematen diela Argüellesi eta Martínez Marinari. Bide batez esanda, hitzaldi honetan gorazarrezko aipamen bat egiten zaio Nafarroako Konstituzio historikoari.

23. *La Constitución de 1812*, Miguel Artolaren Atariko Azterlana. Testuen aukeraketa Rafael Flaquer Montequiren eskutik. Madril: Iustel. 2008.

24. *Discurso preliminar a la Constitución de 1812*, Argüellesek irakurria: L. Sánchez Agesta argit., Madril: CEC, 1989, 78 or.

11. Gai nagusien tratamendua: nazioa, subiranotasun nazionala eta legearena, botere banaketa, gizabanakoaren eskubideak

Konstituzioen historialariek parametro batzuk erabiltzen dituzte Konstituzio baten izaera liberala balioesteko. Frantziako Iraultzan egonkortutako dogma politikoak dira. Cadizeko testuan gauzatu ote ziren aztertzea dagokigu orain. Honako ideia edo kontzeptu hauei buruz ari gara: nazioa, legearen subiranotasunari lotutako subiranotasun nazionala, Konstituzioaren goraipamena, eta gizabanakoaren eskubideen deklarazioa. Horri dagokionez hain esanguratsuak ez direnez, alde batera utziko ditugu garrantzi handikoak diren hainbat gai. Esaterako, Gorteen arauketa, erregea, auzitegiak, lurralde gobernua, zergak, heziketa publikoa eta Konstituzioaren erreforma.

Kontzeptu horiek jadanik existitzen ziren, partzialki bada ere, Antzinako Erregimenean, eta Erdi Aroaren amaiera aldera ere badaude kontzeptu horien arrastoak. Azken mendeetan, errege absolutismoaren ezarpenak ilundu eta bigarren mailara baztertu zituen, baina itxura berria hartuko dute XVIII. mendeko teorikoek batez ere 1780eko urteetan egin zuten prestaketa lanaren ondoren. Sièyes elizgizona izan zen eraginkorrenetako bat.

Izan ere, 1789tik 1791ra bitartean, Frantziako Iraultzaren sortze-urteetan, aipatu kontzeptuak positibizatu eta elkarrekin lotu ziren, eta 1791ko, 1793ko eta 1795eko Konstituzioetan eta hurrengoetan gauzatu ziren, eta gero, partzialki, Napoleonek okupatutako herrialdeetako Carta Magnetan. Lehendabizi *Estatua* bera, bai agintarien pertsonatik, bai haien gobernupekoetatik bereizten den erakundetzat hartzen dena orain. Gero *nazioa* kontzeptua, erabat aldentzen dena Antzinako Erregimenean zuen esanahitik, hau da, interesak defendatzen dituzten gorputz sozialen multzoa, erregearen manupean dagoena. Nazio iraultzailearen berritasuna da komunio moduko batek lotzen dituen eta kolektibitate publikoarekin bat egiten duten gizabanako edo hiritarrek osatutako gorputz bakar bat osatzea. Nazioa da interes orokorra defini dezakeen entitate bakarra. Nazioagan jatorria duen botereak osatzen du *subiranotasun nazionala*, Zuzenbide publikoko berriaren oinarrizko kontzeptua eta *legearen subiranotasunarekin* lotura estua duena, haren agerpen nagusia baita denengan eragina duten erabakiak hartzea, hau da, legeak ezartzea. Legalismo iraultzaileak bere egin zuen Rousseauren esapide hau: "legea borondate orokorraren adierazpena da". Legeak gutxiengoen borondatea ere adierazten du, zeren, herritar senezko elkartasunaren bidez, gehiengoaren borondateari atxikitzen baitzaizkio ("misterio demokratiko handia" da, fede-egintza batean oinarritua). Eta lege guztien artean bada bat pentsamolde liberalak goraipatzen duena, *Konstituzioa*, talde subiranoa ordezkatzen duten organo guztiei ezartzen zaiena. Testu idatzi bat da, idazketa sistematikoa duena, nazioaren ordezkarien batzarrean du jatorria, eta botere legegilea, betearazlea eta judiziala antolatzen ditu. Botere banaketaren printzipioak arautzen ditu botere horiek. Azkenik, aipa dezagun subiranotasun nazionalaren izaera ahal-

guztidunaren eta lege-emaile konstituziogile batek gainditu behar ez dituen muga batzuk izatearen arteko kontraesana konpontzen saiatu zela Zuzenbide publikoa. *Gizakiaren eta hiritarraren eskubideei* buruz ari gara. Eskubide horiek 1789ko abuztuaren 24an aldarrikatu ziren.

Hortaz, laburki aztertuko dugu nola erabili zituzten Cadizko Gorteek ordezkatze-sistemako erregimen liberalaren bereizgarri diren kontzeptu horiek. Hasiera batean nabarmentzekoa da **Estatu kontzeptua**, Espaniako Monarkia edo Espainiar Monarkia izenpean, errealitate irmoa zela 1810ean, eta frantsesen aurkako borrokak sendotu egin zuen errealitate hori. XVIII. mendearen hasieran Espainia estatu unitario eta are uniforme ere bihurtua zen, foru sistemak Nafarroako Erresuman eta Probintzia Baskongadoetan bizirik irauten bazuen ere. Kontzientzietan jadanik barneratua zegoen errealitate bat zen. Beraz, konstituziogileek arazorik gabe onartu zuten nazioaren kontzeptu iraultzailea. Baina, estatuak Frantzian eta Espainian bilakaera desberdina izan zuenez, hasiera batean, litekeena zen, beharbada, lurralde batzuetako diputatuek Espainian konfederazio sistemak zuen tradizio handia, Koroa eta Erresumez osatutako Monarkia batek ordezkatzen zuena, aipatzea. Errealitate horri buruzko aipamen ahul bat isilarazi egin zen, Muñoz Torreroren esku-hartze garratz eta gaitzesleak agerian utzi zuen bezala. Horrek argi eta garbi erakutsi zuen jakobinismo frantsesak federalismoari buruz zuen iritzi ezin txarragoa onartua zegoela.

Cadizeko eztabaidetan agertu ziren bai kontzeptu tradizionala, bai indibidualista, baina ikusmolde frantsesa gailendu zen, **Espainiar nazioa** honela definitu baitzen Konstituzioaren 1. artikuluan: "bi hemisferioetako espainiar guztien bilgunea". Beraz, ez zegoen lekurik austriazaleek defendatutako ideiarentzat, hau da, Aragoiko Koroak –bere lau erakunde politikoekin, estatu izaera zutenak guztiak– eta Gaztela-Leongoak osatutako Estatua. Une hartan Nafarroako erresumaren konstituzio historikoa indarrean zegoen, baina erresuma ez da aipatzen. Definizio honekin eta dagokion tratamenduarekin errotu zen XIX. eta XX. mende osoan iraungo duen komunitate politikoaren ikusmolde jakin bat. Cadizen ekarpen nagusia espaniar nazioaren kontzeptua konstituzioan jasotzea dela dioten egileek arrazoia dute[25].

Kontzepzio nazionala eta jatorria kontzepzio horretan duen **subiranotasun nazionala** (*demos* zehatz baten borondaten orokorraren bertsio politiko gisa), argi eta garbi jasotzen da Gorteek 1810eko irailaren 24an egindako lehen bileran eman zuten lehenengo dekretuan. "Biltzar hau osatu eta espainiar nazioa ordezkatzen du-

25. PORTILLO VALDÉS, José María, *Revolución de nación. Orígenes de la cultura constitucional en España*, Madril: Azterlan Konstituzionaletarako Zentroa, 2000. FERNÁNDEZ SARASOLA, *La Constitución...* hemen: V. kap. GONZÁLEZ TREVIJANO, Pedro, "Nazio kontzeptua Cadizeko Konstituzioan", ESCUDERO, *Cortes y Constitución de Cádiz: 200 años*, Madril: Espasa-Calpe, 2011, II, 607-620 or.

ten diputatuek adierazten dute Gorte Orokorrak eta ohiz kanpokoak eratu dituztela legez, eta beraiei dagokiela subiranotasun nazionala". Konstituzioaren testuko 3. artikuluak berretsi zuenez, "Nazioari dagokio subiranotasuna, eta horrexegatik berari dagokio eta ez beste inori bere funtsezko legeak ezartzeko eskubidea". 1791ko Konstituzio frantsesak jasotako doktrinari jarraitzen zitzaiola ulertzen da, hau da, "subiranotasuna bakarra, banaezina, besterenezina eta iraungiezina zen". Esan gabe doa botere subiranoaren kualitate horiekin iragarrita zegoela foru eraentzen desagerpena. Eraentza horiek praktikan, segurtasunik gabe, onartuak izan zitezkeen, baina ezin zitezkeen jaso konstituzioan.

1789ko Deklarazio frantsesak esaten zuenez "eskubideen bermea bermatzen ez duen eta botere banaketa definitzen ez duen gizarte batek ez du Konstituziorik" (16. art.) Hauek Cadizeko testuaren bi ahulgune dira. Izan ere, Cadizeko sistema bereizten duen osagaietako bat da konstituzioaren eredu liberaletik urruntzen dela **botere banaketari** dagokionez. Botere horiek herritarren eskubideak bermatzen dituzte Estatuko organo desberdinei esleitzen baitizkie lehen erregeak betetzen zituen eginkizunak. Gorteek 1810eko irailaren 24an aldarrikatu zuten botere banaketa, eta eredu liberaletik urruntzen zela ezkutatzen dute botere kontzeptua ahalmen kontzeptuarekin ordezkatuz eta erregeari Konstituzio frantsesak monarkari ematen ez zion pisua emanez. Hemen Gorteek eta erregeak betetzen dute legegintza funtzioa, eta azken honi dagokio funtzio betearazlea. Funtzio judiziala ez da jasotzen botere gisa, ez eta ahalmen gisa ere, eta legeek ezarritako epaimahaiei esleitzen zaie, Antzinako Erregimenaren juriskikzio oinarria aldatu zuten erreformak egin bazituzten ere zuzenean.

Baina, ziur aski, ezaugarri bereizgarri aipagarriena **gizabanakoaren eskubideen deklarazioari** dagokiona da. Cadizeko Konstituzioak, Estatu Batuetako Konstituzioarekin alderatuz neurri handiagoan, murriztu egin zituen eskubideak, Frantziako Deklarazioak eta konstituzioek egin zutenaren aurka. Sakoneko desberdintasuna da, ikusmoldeari dagokiona. Frantziako Iraultzak nazio subiranoak eraikitako eraikin konstituzionalaren gainetik jarri zituen gizabanakoaren eskubide naturalak. Cadizeko Gorteen osoko bilkurak, aitzitik, baztertu egin zuen eskubideen deklarazio edo taula bat sartzeko asmoa, Konstituzio Batzordeak proposatzen zuen bezala. Ondorio gisa, Cadizeko testuaren beste ezaugarri bat da aitortzen dituen eskubide murriztuak, testuan han eta hemen barreiatuta daudenak, ez direla unibertsalak, baizik eta espainiar Nazioaren eskubideak direla, eta espainiarrek edo hiritarrek nazio horretakoak izateagatik dituztela, eta, segun eta zein eskubide den, espainiarra edo hiritarrena izango da, baina inola ere ez gainerako gizakiena. Aitortutako eskubideak mugatuak daude legez, eta horrek esan nahi du Gobernuak definitzen dituela, eta, azken batean, gobernuaren nahira daudela.

Ordena instituzionala gainditzen duen gizabanakoaren eskubide bakarra jabetza da. Berdintasun printzipioa edo esklabotasuna ezeztatzeko printzipioa esplizituki aitortuko dituen xedapen orokor bat falta da. Konstituzioak ez ditu aipatzen

segurtasunerako eta berdintasunerako eskubideak eta murriztu egiten du askatasun pertsonalerako askatasunaren edukia, eta, lehen esan dugun bezala, jabetzarako eskubidea (287. art.), etxebizitzaren bortxaezintasunerako eskubidea (306. art.) eta prentsa-askatasunerako eskubidea (37. art.) –heziketa publikoari buruzko tituluan–, habeas corpusa... Deigarriena da Erlijio katolikoaren aitorpen ofizial eta esklusiboa eta gainerako sinismenenekiko erabateko tolerantziarik eza.

Panamako diputatu batek agerian utzi zuen berdintasun deklarazioa falta zela. Litekeena da esatea konstituziotik at urratsak eman zirela norabide horretan jaunen erregimena ezeztatuz eta nobleak Armadan eta Itsas armadan sartzeko zituzten abantailak kenduz. Ildo beretik, abantailen iraungitzea justizia penalean, irakaskuntzan, jurisdikzio foruen batasuna, kodeena, "Gorteek inguruabar bereziak direla medio egin ditzaketen aldaketak galarazi gabe" (258. art.). Baina berdintasunetik urrun zegoen afrikar jatorriko esklaboei sufragio eskubidea eta herritar eskubideak kentzea (22. art.) edo bizilekua Amerikan zutenek zeukaten ordezkatze pisua txikiagotzea. Europarrek Gorteetan gehiengoa izatea bermatu nahi izan zen (diputatu bat 50.000 biztanleko Espanian, eta diputatu bat 100.000 biztanleko Amerikan). Gai honetan ez zen izenezko bozketarik egin, eta ez da ezagutzen boto banaketa[26].

Beste desberdintasun agerpen bat da sufragioa eta ordezkaritza hiritar aktiboei gordetzen zaiela, hau da, jornalen zenbateko baten baliokidea zen zerga zuzena ordaintzen zutenei. Zenbat eta handiagoa hauteskunde maila, orduan eta handiagoak ziren errenta betekizunak. Jabetza edo bestelako ondasunak ordezkaritzari zegozkion betebeharrak betetzeko bermetzat jotzen ziren.

12. Gorteen lau erreforma esanguratsu. Inprenta askatasuna, tortura ezeztatzea, jaunen erregimena eta Inkisizioa ezeztatzea

Aipamen labur bat baino ez Gorteen beste jarduera aipagarri batzuei gizartean eragin handia duten beste lau erakunderi dagokienez. Zentsuraren ezeztatzearekin eta inprenta askatasunaren ezarpenarekin hasiko gara. 1808an zentsura bikoitza zegoen Espainian, erregearena eta Inkisizioarena. Batzarraren saioak hasi zirenean, irailaren 27an, errege zentsura kentzea proposatu zen, eta dekretua azaroaren 11n onartu zen. Dekretuak honako hau ezartzen zuen: "gorputz eta pertsona partikular guztiek, zeina-

26. RIEU-MILLÁN, Marie Laure, *Sobre los diputados americanos en las Cortes de Cádiz*, Madril: Ikerketa Zientifikoen Goi Mailako Kontseilua, 1990 Espainiarren eta amerikarren arteko eskubideen parekatze formala berandu zetorren, eta Gorteek emandako lehenengo dekretuetako baten bidez egin zen 1810eko urriaren 15ean. Testua hemen dago: GARCÍA GALLO, Alfonso, *Curso... II*, 1196 zk.

hi dela ere beraien izaera eta egoera, beren ideia politikoak idazteko, inprimatzeko eta argitaratzeko askatasuna dute argitaratu aurretik baimen, berrikuspen edo onespenik eskatzeko beharrik gabe". Konstituzioaren 371. artikuluan jaso zen. Egin kontu ez zirela ideia erlijiosoen zabalkundeari buruz ari, ideia erlijiosoek elizaren zentsurapean segi baitzuten. Elizaren zentsuraren helburua zen Monarkiaren oinarrizko printzipio bat gordetzea: batasun katolikoa[27]. Bigarren erreforma ere Ilustrazioaren ideietan oinarritzen da, bereziki Beccariaren ideietan, eta gero Iraultzaren ideietan, eta zigor prozedura eta espetxeko bizitza duindu nahi zituen. Tortura ezeztatzeari buruzko dekretuaz ari gara. Dekretu hori aho batez onartu zen hurrengo urteko apirilean. Konstituzioaren 303. artikuluan jaso zen honela: "Inoiz ez da erabiliko ez estirarik, ez hertsatzerik ere". Hirugarren erreforma, jaunen erregimenari buruzkoa, eragin handia izango zuen Estatuan. Egin kontu 1808an Espainiako 25.000 herrien erdia baino gehiago jaunaren herriak zirela eta 4.716 hiritatik 1.703 baino ez zirela koroaren hiriak. Ez zen egiteko samurra Koroan sartzea, zaila baitzen bereiztea, jaunen erregimenaren barnean, jaunen jabetza eskubideak egikaritzen zituzten Zuzenbide publikoko ahalmenetatik (politikoak, judizialak, fiskalak, etab.). Aipatu ahalmenak eta subiranotasun nazionala bateraezinak ziren. Eztabaidak 1811ko martxoaren 30ean hasi ziren eta dekretua abuztuan eman zen. Dekretuaren 10 artikuluek aipatu berri ditugun bi planoak bereizten zituzten, eta jabetzari eutsi eta arlo jurisdikzionala kendu zuten. Hala ere, bereizketa zehaztearen arazoak bere horretan jarraitzen zuen, eta konponbidea ia hiru hamarkada geroago iritsi zen[28]. Eta, azkenik, gai nagusia: Inkisizioa. Carta Magna onetsi eta Gorte konstituziogileei amaiera jarri baino lehen, batzarrak Ofizio Santua ezeztatzeko zereginari heldu zion. Ofizio Santua deuseztatzeko ahaleginen aurrekariak bazeuden aurreko mendearen amaieran. Hain zuzen, gaia aztertzeko Gorteetan Batzorde berezi bat sortzen den unean, Inkisizioak ez zeukan bururik. Eztabaida luze eta gogorra izan zen (aktek 700 orrialde dituzte eta letra txikian idatzita daude), eta hala prozedurari buruzko kontuak nola mamiari buruzkoak izan ziren eztabaidagai. Eztabaidak areagotu egin zituen diputatu kontserbadore eta liberalen arteko desadostasunak. Dekretua 1813ko urtarrilean onetsi zen, 90 aldeko botorekin eta 60 aurkako botorekin. Bost hilabeteren buruan Fernando VII.ak berriz jarri zuen Inkisizioa[29].

27. Álvarez Junco, José, De la Fuente Monge, Gregorio, *El nacimiento del periodismo político. La libertad de prensa en las Cortes de Cádiz (1810-1814)*, Madril: Fragua Editorial, 2009, 46. or. eta hur.

28. Gorteen dekretua, 1811ko abuztuaren 6koa, hemen dago: García Gallo, Alfonso, *Curso... II*, 1293 zk. Moxó, Salvador, *La disolución del régimen señorial en España*, Madril: Ikerketa Zientifikoen Goi Mailako Kontseilua, 1965. Galván Rodríguez, Eduardo, "Jaunen erregimenaren deuseztatzea", Escudero, *Cortes y Constitución de Cádiz: 200 años...*, 204-219 or.

29. Escudero López, José Antonio, "Espainiar Inkisizioa ezeztatzea", *Estudios sobre la Inquisición en España*, Madril: Marcial Pons, 2005; eta "Cadizeko Gorteak eta Inkisizioa kentzea: aurrekariak eta ondorioak", Escudero, *Cortes y Constitución de Cádiz: 200 años...*, IV. kapitulua.

13. Cadizeko Konstituzioaren izaerari buruzko interpretazioak: iraultzailea edo ordena tradizionala eguneratzen duena

Azken hamarkadan Cadizek Espainiar estatuaren bilakaeran duen esanahiari buruzko interpretazio bikoitza sendotu da. Egile gehienen, eta, berriki, José Antonio Escuderok koordinatutako lan kolektibo luzearen lankideen iritzian, Cadizeko konstituzioak amaiera jarri zion, ikuspegi teorikotik, Antzinako Erregimenari eta Estatu liberalaren oinarriak ezarri zituen Espainian. Cadiz 1791ko Konstituzio frantsesaren espirituarekin lotuta egongo litzateke[30]. Egun, HICOES eragin handia duen eta lan handia egiten ari den ikerketa taldeak Europako eta Espainiako historiografia tradizional konstituziogileari egozten die Estatu forma duten nazio batzuk eta lege forma duen zuzenbide bat legitimatzeko nahia izatea. Haientzat ez daude argi 1791ko eta 1812ko testuen arteko antzekotasunak. Cadizeko lanaren eta Antzinako Erregimenaren arteko jarraitutasuna azpimarratzen dute, hark espainiar Monarkiaren kulturako eta erakundeetako elementuak jasotzen dituelako konstituzioan, eta, bereziki, erlijio katolikoa. Gainerako sinesteekiko tolerantziarik eza erabatekoarekin babesten du erlijio katolikoa, arrazoiketa historizistaz gainera[31]. Ikuspegi berritzailearen erakusgarri nagusi behinena Jean-Baptiste Busaallen lanetan dago. Busaall Nafarroako Unibertsitate Publikoko doktoretza-ikasle ohia izan zen, eta ikuspegi berritzaile hori bereziki agertzen da bere doktoretza tesiaren emaitza gisa Casa de Velázquez-en argitaratu berri den lan batean. Lan horrek Cadizi buruzko ikuspegian eragina izango du hurrengo urteetan inondik ere. Haren iritzian, honako hau da Cadizeko testuaren berritasuna: espainiar Nazioaren Forua berrezartzen du; beraz, ez da iraultza liberal bat. Testuak nazioari itzuli zizkion absolutismo monarkikoak nazioari kendutako eskubideak, Espainiako tradizio politikoaren interpretazio *sui generis* baten bidez[32]. Konstituzioa funtsezko legeen kodetzat hartzen du, gobernu-erakunde desberdinen arteko jurisdikzio eskumenen banaketa ezartzen duena (Gorteak, erregea, auzitegiak, probintzia diputazioak...), "Monarkia moderatu bat" ezartzeko berdefinitzen duena (14. artikulua), eta aplikatzeko bermeak jasotzen dituena nazioaren eskubideen indargabetzea berriro errepika ez dadin.

30. Jatorria Frantziako ideia politiko-konstituzionaletan duten elementuen eta jatorri tradizionaleko elementuen azterketa bat hemen: Fernández Sarasola, Ignacio, Cadizeko Konstituzioaren ereduak historizismo nazionalistaren eta frankofiliaren artean, hemen: *La Constitución de Cádiz*... 89-115 or.

31. Cf. Garriga, Carlos eta Lorente, Martaren lanei cf. *Cádiz, 1812: la Constitución jurisdiccional*, Madril: Azterlan Politiko eta Konstituzionaletarako Zentroa, 2007.

32. Busaall, Jean-Baptiste, *L'spectre du Jacobinisme. L'expérience constitutionelle française y et le premier Libéralisme espagnol*, Madril: Casa de Velázquez, 2012.

Busaallek agerpen batzuk ekartzen ditu, eta agerpen horiek erakusten dute Cadizeko Konstituzioak berezkoa duen ezaugarria dela gobernu tradizionala eguneratzen duela. Hala, lehengo erakunde eta gizarte sareari, hau da, dauden pertsona eta lurralde korporazioei Konstituzioa ezartzeko nahia ikusten du Gorteek ezarritako zin konstituzionalaren forman. Elizetan egindako zeremonia ospetsu batean korporazioetako kide gisa zin egitera behartzen zituen espainiarrak. Aipatu zinak betebehar erlijioso bihurtzen zuen funtsezko legeen kodea betetzea[33]. Horretaz gainera, zin egiteari zeinahi erreserba egiteko debekua ezarrita, konstituziogileek testua sagaratzen dute eta onartzen dute ez direla gai beren kabuz legitimatzeko. Bigarren lekuan, Busaallek idazten du legea borondate orokorraren adierazpena delako printzipio iraultzailea beste gauza bat bihurtzen dela Cadizen, Zuzenbide itunzale tradizionalaren figura bat, Gortearen eta erregearen arteko hitzarmen bat. Ordena juridiko zaharraren bereizgarria zen, halaber, arauak korporazioen bidez argitaratzeko sistema. Korporazioek hierarkian goian zutenarengandik jasotzen zuten testua, 156. artikuluan aipatzen den bezala. Eta, amaitzeko, ez da Zuzenbide publiko liberalaren ezaugarria Konstituzioaren bermea Administrazioaren maila guztietako enplegatu publikoen erantzukizun pertsonal eta penalean jartzea. Zin batek behartzen zituen (374) Konstituzioaren aurkako arau hausteen erantzule izatera pertsonalki. Administrazioak Konstituzioari men egitea lortzen zen administrazio hierarkiaren kaltean, hierarkia hautsi egiten baita norberak egiazta badezake jasotako aginduen konstituzionaltasuna[34].

Laburbilduz, elite sozial kontserbadoreen berehalako erreakzioak eta sustrai, tradizio itunzalearen sendotasunak gainditu egin zituen ordezkatze gobernuaren printzipioak bere egin zituzten espainiar iraultzaileak. Egia da Cadizeko Konstituzioak itzuli zizkiola nazioari, baina konponbide hauskorra zen, tresna juridiko tradizionalei eustearen eta egitura politiko eta sozialak berritzeko nahien artean zegoen kontraesanarengatik. Erregimen konstituzionalak ez zeukan babes sozialik eta erorarazi egin zuten Fernando VII.a itzulitakoan[35].

33. Gorteen dekretua, 1812ko abuztuaren 17koa, Konstituzioaren zinari buruzkoa, hemen dago: García Gallo, Alfonso, *Curso... II*, 1212 zk.

34. Cf. halaber aurreko beste bi lanei, Busaall, Jean-Baptiste, "La révolution constitutionnelle de 1812 dans la Monarchie espagnole: une rénovation de l'ordre juridique traditionnel", dans *L'idée contractuelle dans l'histoire de la pensée politique*, actes du XIXe colloque de l'Association française des historiens des idées politiques (AFHIP XIX): Aix-en-Provence (06/07-09-2007), Aix-en-Provence, PUAM, 2008, p. 419-438; "À propos de l'influence des Constitutions françaises depuis 1789 sur les premières constitutions écrites de la Monarchie espagnole. L'exemple de l'ordonnancement territorial dans la Constitution de Bayonne", *Iura Vasconiae*, 8 (2011), 9-31 or.

35. Fernando VII.aren dekretua, 1814ko maiatzaren 4koa, Konstituzioa ezeztatzeari buruzkoa, García Gallo, Alfonso, *Curso... II*, 1212 zk.

14. Cadizeko Gorteak eta Nafarroako konstituzio historikoa

1808an Nafarroako erresuma bazen, eta, beraz, estatu batek berezkoak dituen erakundeak zituen, baina politikoki Gaztelari lotuta zegoen erregearen bidez. Hau da, lotura pertsonal baten bidez. Dinastia-aldaketak eta Baionako Estatutuaren onespenak kinka larrian jarri zuten Erresumaren Diputazioa, ez baitzen bere eskumena, baizik eta Nafarroako Gorteena Jose I.aren zina egitea eta konstituzio berri bat onartzea. Eta Bonapartek ez zituen Gorte haiek bildu nahi. Iruñean egokitutako armada frantsesak zin egitea eskatzen zuen, eta abuztuaren 29an Diputazioak ihes egin zuen erresumatik. Beraz, erresuma solaskiderik gabe geratu zen Estatuan ezarritako botere berrien aurrean. Cadizeko Gorteak biltzeko deia egin zenean, Erregeordetzako Kontseiluak ez zuen aintzat hartu Nafarroaren erresuma izaera deialdia egin zen unean –gonbit egin ziezaioketen, ez ordea dei egin– eta hauteskunde-eraentza orokorrean sartu zuen. Teorian lau diputatu zegozkion Nafarroari, baina, armada frantsesaren okupazioa zela-eta hauteskundeak egitea ezinezkoa zenez, ordezko diputatu bakar batek ordezkatu zuen, Francisco de Paula Escudero fragata kapitain corellarrak. Cadizen bizi ziren 44 nafarrek hautatu zuten. Gure diputatuak ez zuen txintik ere esan bileretan.

Batzarraren bileretan zeharka baino ez zen aipatu Nafarroaren erresuma bereiziaren izaera, eta izaera hori ez zen jaso Konstituzioaren artikuluetan. Konstituzioa Monarkia eguneratuaren barnean erresuma bereizi batek irautearekin bateraezinak ziren dogma politikoetan oinarritzen zen. Cadizeko testuarekin bat etorriz, Nafarroa Monarkiako beste lurralde bat gehiago bihurtu zen, erresuma izendapenik gabe, erresuma izaera baldin bazuen ere. *Atariko hitzaldian* Nafarroako konstituzio historikoari egiten zitzaizkion gorazarrezko aipamenek beste helburu bat zuten. Haien bidez erakutsi nahi zen erregeen boterea mugatu eta komunitatearen eskubidea gordetzen duten erakunde tresnak izan zirela historian zehar eta orduko hartan[36]. Konstituzioa onetsi eta urtebetera, eta armada aliatuak Nafarroan sartu bezain laster, konstituzioaren nahitaezko zina egiteko eta konstituzioaren araberako aginta-

36. Nafarroako konstituzio historikoari buruzko lan bat egin zen Cadizeko Gorteen bilerak egin ziren bitartean. Egilea Erregeordetzako Kontseiluko kidea zen, eta denboraldi bat igaroa zen Iruñean Nafarroako Errege Kontseiluko magistratua izan zenean. Benito Ramón de Hermida, *Breve noticia de las Cortes, gobierno o llámase Constitución del Reyno de Navarra, publícala en obsequio de las Cortes generales y extraordinarias en Cádiz con algunas ligeras reflexiones, su diputado de ellas por la provincia de Santiago D...* Cadiz: Inp.: Niel hijo, 1811 [2. argit. 1812, Santiago: Inp. Ignacio Aguayo. Jean-Baptiste Busaallen liburuan ere agertzen da (Lartaun de Egibar Urrutiarekin lankidetzan), *Las instituciones del Reino de Navarra en el debate histórico jurídico de la revolución liberal*, Iruñea: Universidad Pública de Navarra/ Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2005, 185-212 or.].

riak ezartzeko eskatu zitzaien herri eta hiriei, –baina ez erresumari–. Baina, aipatu denez, Nafarroako buru zen taldeak pentsatu zuen erresumaren desagerpena gertaera igarokorra zela, autogobernuak izan zituen beste egoera kritiko batzuen antzekoa[37]. Adierazgarria da benetan, 1814ko maiatzean, Probintzia Diputazio batek, eta beraz konstituzioaren araberakoa zenak, ordezkaritza bat sinatu zuela Fernando VII.arentzat, eta Javier de Elío lotinant jeneralari eta bere anaia Joaquín de Elío jeneralari agindu zien eramateko. Mezuak konstituzioaren zinaren balioa ezeztatzen eta erresuma berriz ezartzeko eskatzen zuen[38]. Erregeak onartu egin zuen. Baina, Nafarroako agintariek egoerari buruz zuten ikusmoldeaz harago, zirkunstantzia historikoak erabat aldatu ziren, bai Monarkian eta bai Nafarroan bertan ere. Hain zuzen, Nafarroan guztien adostasuna hautsi egin zen. Gerrak eragindako elkartasuna aldatu egin zuen eliteen sektore baten eta herritarren egoera mental eta emozionala gai honi buruz: Nafarroa berez erresuma bat zela. Konstituzioa eta foru sistemaren erreforma onartzen dute, eta foru sistema Antzinako Erregimenaren eraikuntzatzat hartzen dute[39]. Nolanahi ere, aipatzekoa da erresuma ezeztatua egon zela Cadizeko Konstituzioa indarrean egon zen bitartean, lehendabizi 1814ko maiatzera arte, eta gero 1820tik 1823ra bitartean, edo 1836an. Errege Estatutuak ezarritako berezko erakundeen desagerpenarekin 1834an gertatzen dena edo gerra karlista amaitzean adostutako konponbidea beste errealitate bat dira.

37. Busaall, *ibid.*, 84. or.

38. Mezuaren testua hemen: Monreal Zia, Gregorio, "Los Diputados...", Escudero (arg.), *Cortes y Constitución*... I, 395-396. or.

39. Cadizeko Konstituzioari eta Nafarroari buruzko aipamenei dagokienez, honako hauek ditugu: Laborie Erroz, María Concepción, "Navarra ante el constitucionalismo gaditano", *Príncipe de Viana* 112-113 (1968): 273 or.-326. Miranda Rubio, Francisco, *La Guerra de la Independencia en Navarra. La acción del Estado*, Iruñea: Vianako Printzea erakundea, Nafarroako Foru Diputazioa eta CSIC, 1977. De la Torre, Joseba, "1812ko konstituzioa Nafarroan: egoera ekonomikoa eta aldaketa politikoa (1813-1814)", Cano Bueso, Juan (arg.), *Materiales para el estudio de la Constitución de 1812*, Sevilla Andaluziako Parlamentua; Tecnos, 1989, 747-764 or. Jean-Baptiste Busaallen lana, jadanik aipatu dena. *Las instituciones del Reino de Navarra en el debate histórico-jurídico*... Monreal Zia, Gregorio, "Nafarroako Erresumako eta Probintzia Baskongadoetako diputatuak Cadizen", Escudero (arg.), *Cortes y Constitución*... I, 374-418 or. *Iura Vasconiae*, 8 (2011) aldizkarian argitaratutako lan batzuk gehitu behar dira: Mikelarena Peña, Fernando, "Discursos en torno a la Constitución histórica de Navarra hasta 1813. Origen del concepto y adaptaciones a un contexto cambiante" (63-162 or.); Galán Lorda, Mercedes, "Navarra ante el nuevo fenómeno constitucional: el gobierno del último reino peninsular entre 1808 y 1814" (pp. 281-234); Alli Aranguren, Juan Cruz, "Las instituciones del Reino de Navarra en el primer constitucionalismo español" (325-384 or.).